

ABIZENAK

Otamendi: Gipuzkoan zabalen. Otea dagon mendia. Alegin 1664.

Otaola: Eibar'en eta Markiñan. "ola-" atzizkia danean ugaritasuna da. otea ugari dagon lekua. Arrasaten 1596.

Otazua: Arrietan asko eta etxea be bai. Araban Otazu da. Toki otatsua esan gura dau. Tolosan 1346.

Oteiza: "Ote-ezaguna da", "-iz-" ugaritasuna da "Judiz-mendi" judatarren mendia. Orduan, "oteiza" ote asko dagon lekua.

Ojanguren: "Oian-" baso baltza ba'da, gorengo baso baltza edo baso baltzaren goiena litzake. Azkoitian 1484.

Oiarbide: Gipuzkoatik Bizkaira. "Oianerako", basorako bidea da. Zumarragan 1595.

Oiarzabal: Baso baltz zabala edo leuna esan gura dau. Azkoitian 1464.

Ozaeta: Ozaetan 1160. "Oza" asko dagon lekua da baiña ez dago "oza" ori zer dan. Bedarren bat.

Pagaldai: Pagoak dagoen aldea. Bolibar 1605.

Pagasarri: Pagoak dagoan sarria edo berezia.

Pagoaga: Mendarotik. Pagoa dagon lekua. Ezkiogan 1411.

Pagola: Pago asko dagon lekua. Tolosan 1595. Naparroatik etorri eta Gipuzkoan eta Bizkaian bizi dira.

Peña: Karrantzan. Erderaz be abizen bardin bat dago Mena ibarretik sortua. Antxiña "pina" izan zan. Ez daki-gu zer esan. Ortik Pinuaga. Izena San Juan de la Peña'n dago oso antxiñatik.

Perea: Aiala ingurutik dator eta Bizkaian Basauritik Somorrostrora eldu da. "Berea"ren aldakuntza izan leiteke. Jerusalemgo zaldunen artean 1579.

Perurena: Baztanen. Peru'ren etxea da. Iruña 1780.

Pikaza: Bizkaian. Ikoen lekua edo aldatz aundia dagon lekua. Ez dauko zer-ikusirik erderazko "Pica-za"gaz.

Pildain: Gipuzkoakoa da. "-ilda-" barruti-lekua da, "P-" gero ezarria eta "-ain" gainean esan nai dau. Beasain'en 1716.

Plazaola: Gipuzkoan. Plazan dagoan burdin-lentegia. Legazpian 1532.

Pujana: Otxandiano-aldean. "-usa" grama deritxon landara bat da, "P-" gero ezarria eta "-ana" toki-atzizkia. Bergaran 1650.

Kereizaeta: Azpeitian eta Elorrrion. Kerizak dagoen lekua da. Azpeitian 1625.

Kejarazu: Kereiza asko dagon lekua. Arrasaten 1625.

Kintana: Enkarterrian. Latiñetik artua da: "Kintus", eta izen ori eukan baten lurtean dagoan etxea da, bardin Luzena, Martxena, Arazena, Rekena. "-Ena" atzizkia euskereak beste izkuntza batzukaz batera dauka.

Renteria: Bizkaian. Donosti-ondoan. Zergak (erren-tak) eskatzen diran lekua da. Balladolid'en 1726.

Rementeria: Olakaz batera doa eta burdiñea erreminta edo lanabes biurtzeko tokia da. "Ari" lanbidea.

Respaldiza: 1093n. urtean Arispaldiza zan. "Aritz-" da oiñarria eta besteak atzizkiak. Aritz asko dagon lekua da. Balladolid'en 1701.

Rioja: Donostian 1606. Erri otza? ala Rio oja edo osa? "Osa" guztien lurra izan leiteke.

Olazar'tar Martin'ek